MUGAZ GAINDIKO KONTAKIZUNAK

[*Memoria partekatuak*]

CEA(R) EUSKADI

Euskadiko **Errefuxiatuen Laguntzarako** Batzordea

MUGAZ GAINDIKO KONTAKIZUNAK

[*Memoria partekatuak*]

Asilo-eskubidea ihes egitea da.

Ihes egitea deserrotzea da, justiziaz dagokigun hori, geure bizitza, galtzearen mina. Amildegira jauzi egitea da; badakizu nondik zatozen, baina ez non eroriko zaren. Alde egin beharra duzu, desagertutakoen zerrenda gizenduko ez baduzu.

Ihesa itxaropenarena da, bizi-ametsak dira. Txoko baten bilaketa da, non bizi ahal izango duzun.

Asilo-eskubidea berriro jaiotzea da, galdu duzun hori topatzea. Bermeo nire jaioterria dela diot han jaio nintzelako berriro; Txilen geratu izan banintz, ezingo nukeen kontatu.

Sarri askotan, kartzelatu egiten dute asiloa; jendeari babesa eman ordez, giltzapean sartzen dituzte. Beste toki batera heltzen zarenean, ingurura begiratu, eta konturatzen zara ez zarela inor. Ez daukazu harrera-sarerik zuri laguntzeko. Tiraniari ihes egitea lortu duzu, baina izuaren menpe bizi zara, izuturik egiten duzu amets.

Asiloan, garrantzitsuena jendearen berotasuna da, harrera eta besarkada.

Asiloa itxaropenerako itsasontzia da.

Rigoberto Jara

Asiloa: itxaropen eskubidea, CEAR-Euskadi, 2007.

MUGAZ GAINDIKO KONTAKIZUNAK

[*Memoria partekatuak*]

CEA(R) EUSKADI
Euskadiko **Errefuxiatuen Laguntzarako** Batzordea

Erbestea norberaren bizitzan arrakala bat irekitzea da. Gauetik goizera dena utzi beharrak sortzen duen ezintasuna. Leku ezezagun batean bizitza berri batera egokitu beharra dakar erbesteak, atzean utzi behar izan den guztiak eragindako bihozmina gainditzeko ahalegina egiten den bitartean. Eta frustrazioa dakar, ongietorri goxo baten ordez, bakardadea eta hoztasuna jasotzen denean. Erbesteak ahalegin handia eskatzen du, eta pertsona fisikoki eta emozionalki ahitzen du.

Beren herrialdeetatik ihes egin behar izan duten pertsonen lekukotasunak entzunez, jabetu gara antzeko arrazoiek bultzatuta utzi zutela dena atzean. Alde batetik, beldurra, bizia galtzeko beldurra, indarkeria jasatekoa, pobrezian bizitzen jarraitzekoa. Eta bestetik, bizirik jarraitzeko itxaropena, beste leku batean eta beste pertsona batzuekin familia bat eraikitzeko aukera. Era berean, ohartu gara pertsona horiek emozio berberak bizi dituztela, eta oroitzapen berak dituztela gogoan; horregatik, batak bestearengan islatuta ikusten du bere bizia, batak bestearengan aurkitzen du bere burua.

Baina guztiaren gainetik, erbestea giza esperientzia bat da, erbesteratuak eta hura hartzen duten pertsonek eta gizarteak elkarrekin bizi duten esperientzia. Guk geuk, hemen, orain... nola hartzen ditugu erbesteratuak? Zer eskatzen du pertsona bat enpatiaz eta goxotasunez hartzeak? Inork ez du esan erraza denik. Pertsona bat hartzeak bizi-esperientzia berriak sortzen dizkigu, geure burua interpelatzera garamatzaten esperientziak, gure mundu-ikuskera zalantzan jartzen dutenak. Aurrez aurre jartzen dizkigu mundu honetako gehiegikeriak, gure bizitza kolokan jartzea eragiten duten errealitateak. Zaila da besteen minari eustea, haiei sostengu ematea, eta beraz, zenbaitetan, alde batera egiten dugu. Baina jendea hartzea hazkunde-prozesu bat ere bada. Haien ondoan egotea dakar, eta horrek barrenak mugitzen ditu, aldatu egiten zaitu. Jendea hartzea eta haiekin gizatasunez jokatzea denboran irauten duen konpromiso bat da. Eta eskubide bat da, maitasuna defendatzea, elkar besarkatzea.

Hain zuzen ere, bi premisa horiek –erbesteak, mundu mailako giza esperientzia den aldetik, eta jendea hartzeak dakarren erantzukizunak– bultzatu dute *Memoria partekatuak* izeneko prozesua, esku artean duzun liburu honen oinarria; bi premisa horiek izan dira prozesuaren motorra. Lan honen bidez, CEAR-Euskadik bi kolektibok erbestean bizi izandako esperientzien arteko analogiak azaldu nahi izan ditu; zehazki, bi kolektibo hauek bizi izandako esperientziak: batetik, duela ez asko, Euskal Herria eta familia utzi behar izan zutenek, Gerra Zibilaren eta frankismoaren errepresiotik ihes egiteko, eta bestetik, egun, beste gerra eta jazarpen batzuetatik ihesi gure lurraldera iristen direnek.

Memoria partekatuak prozesuaren garapenean, CEAR-Euskadik antzerkia eta argazkigintza komunikazio-tresnatzat baliatu nahi izan ditu, bai eta norbanakoen eta kolektiboen iruditeria berriak sortzeko baliabidetzat ere. Orrialde hauetan jasotako irudietan, *Tras la frontera* antzezlanaren zenbait une ageri dira; antzezlan hori, hain zuzen, Plataforma Tirante taldeak berariaz sortu zuen lan honetarako. Argazkiak Joseba Sainz de Murieta argazkilari independentearenak dira; zehazki, 2015eko azaroaren 21ean atera zituen, Bilbon egindako antzezpenean. Adierazi behar da *Tras la frontera* antzezlanak bilakaera bat izan duela orduz geroztik; izan ere, antzezle berriek beren kutsua eman diote obrari.

Bestalde, irudiekin batera ageri diren testuak erbesteak eragindako gizon-emakumeen lekukotasunak dira, baina anonimotasunean aurkeztu dira. Leila, Amina, Igor Palomero, Augustine, Ane Albizu, Gustave Kiansumba, Arantzazu Ametzaga, Kepa eta Josu Atxurra, Hady Traore, Ana Mary Ruiz, Samuel, Ainara Unamuno, Rosario Vásquez, Maitena Jauregui eta Amparo Pimientoren hitzak jaso dira. Besteak beste, beren etxeetatik zergatik ihes egin behar izan zuten kontatu digute, nola eragin zuen ihesaldiak beren bizitzan eta beren familien nahiz komunitateen bizitzan, eta zer estrategia erabili behar izan zituzten (norbanako gisa nahiz era kolektiboan) egoera gogor hari aurre egiteko. Amaitzeko, erreparazioa lortzeko aldarrikapenak egin dituzte, aldarrikapen politikoak eta sozialak.

Liburu honetako argazkien bidez, migratzaileen bizitzako istorioak, haien beldurrak eta itxaropenak marrazten diren irudimenezko mihise bat osatu nahi da. Haien hitzak gure begietan islatzea lortu nahi da. Eta horrela, erbestea zer den ulertzea, zeinen sakona eta larria den; jabetzea zeinen garrantzitsua den asiloa lortzea, besarkada bat jasotzea, jendea ondoan izatea; finean, zeinen garrantzitsua den atzean utzitako errespetua eta gizatasuna sentitzea.

CEAR-Euskadi erakundearentzat funtsezkoa da agerian uztea babes bila zebiltzan eta dabiltzan pertsonak ez direla soil-soilik biktima. Guztiaren gainetik, jakintzaz, ikaskuntzaz eta itxaropenez beterik bizitzan aurrera egin eta egiten duten pertsonak dira. Pertsona horien adore, indar eta bizi-gogo handiak ezagutarazi eta aitortu behar ditugu, ihesera behartu zituzten arrazoiak gogoan izateko eta beren eskubideak berma daitezen exijitzeko.

«[...] Oso gaiztoak diren pertsonak aurkitu ditzakezu, baina gelditzea okerragoa izango zen. Eta, halako batean, erabaki bat hartu behar da, di-da: edo gelditu, eta hilabeteren buruan giltzapean bukatu eta nire semeari geroa lapurtu, edo alde egin, bidaia arriskutsu bati ekin, eta bizia arriskuan jarri... Baina ez neukan beste aukerarik...»

«Ez dut inoiz ere ahaztuko handik irten nintzen eguna, ama eta alaba bainituen buruan. Haiek berriro ikusiko ote nituen, besterik ez nuen gogoan. Hori duzu buruan, baina, aldi berean, geroari begiratzen diozu. Nire alabaren geroan eta hari eman diezaiokedan laguntzan pentsatzen nuen. Ez nuen nahi nik txikitan sufritu nuena pairatzerik; edozer egiteko prest nintzen haren bizitza hobetzen laguntzeko».

«Denbora neraman mehatxuak jasotzen: nire alabari, hilen eskela bat eman zioten eskolatik irtetean, eta eskela horrek nire izena zeraman; posta-entregak ere izan nituen, etxetik irteten nintzenetik lantokira iristen nintzen arte egiten nuen bideko argazkiak zekartzatenak».

«[...] beldurrak airean nengoen».

«[...] itsasontzian sartu ziren eta ez zekiten nora zihoazen; eta hara iritsi ziren. Hainbat itsasontzitan sartu ziren eta anai-arrebak leku berera joango zirela pentsatu zuten, baina ez zen horrela izan. Batzuk Kanadara eraman zituzten, beste bat Frantziara eta haiek Venezuelara. Pentsaezina da itsasontzi batera igotzea nora zoazen jakin gabe... Soinean daramazunarekin soilik...»

«Ahal duten moduan bizi behar dute familiek. Horretatik emigratu behar du kanpamenduetako familia ia guztietako kideren batek...»

«Bueltan bidaltzen zaituzte, nor zaren eta nongoa zaren jakin gabe, inolako babesik gabe».

«[...] kartoizko kaxetan sartuta ikusi nuen nire bizitza osoa [...]. Nire bizitzaren atal bat ixten zela bizi nuen, baina sentitzen nuen ez nuela inolako erabakimenik egoera horren gainean».

«Bere bizi guztiko disgusturik handiena izan zen, hemen geratu nahi zuen. Bueltatzeko gogoa adierazi zuen beti».

«[…] zailagoa da migrazioa arrazoi politikoengatik izan baldin bada, lurra uztera zoazela dakizun arren, ez dakizulako itzuliko ote zaren. Agian ez duzu zure familia berriro ikusiko, inoiz ere ez».

«Gorputza leku batean eta burua beste batean izatea bezala da. […] Bitan banatu nahi nuke, alde batean eta bestean egoteko. Bi lekuak baitira, izan, ezinbestekoak».

«Azkenean, ez naiz ez leku batekoa, ez bestekoa».

«Ezin okerrago [*sentitzen nintzen*]. Oso gaizki, oso gaizki, oso gaizki. Ezin lorik egin, ezin edan, ezin jan. Negar eta negar. Lana, nire seme-alabak, nire familia, nire adineko ama galdu nituelako».

«Gauero [*zentro itxian*], ohatzeak atearen kontra jartzen nituen, eta lastairak zoruan, nire semearekin lo egiteko; horrela, baten batek sartu nahi bazuen, tartetxo bat izaten genuen oihu egiteko, zerbait egiteko».

«Berrogeita hamar urte baino gehiago ditut, eta atzera ere nire bizitza kolokan dagoela sentitzea, jendeari segurtasuna eman ohi dion horretatik ezer ere ez daukadala ikustea...»

«Pertsona errefuxiatuen arazo handi eta orokor bat da ez dugula lanik aurkitzen, eta, aurkitzen dugunean, esklabuen lana izaten dela».

«Norberak demostratu behar izatearen sentipena izatea oso gogorra da. Oso konplikatua da. Zurekin gogoratuko badira, paparrean curriculuma eraman behar duzu etengabe, hori da sentsazioa. Oso zaila egin zait harreman egiaz horizontalak egitea».

«Erbestea zer den? Norbera deserrotzeko eta ezerez, kakaren hurrena bilakatzeko modu bat, horixe pentsatzera iritsi nintzen».

«Hogeita hamar urtez gurasoak ikusi ezin izatea desesperatzeko modukoa da».

«Egoera horietara moldatzeko indarra, horixe da mundu honetan daukaguna. [*Hala ere*] ez dago bidegabekeria horietara guztietara moldatzerik».

«Hemen beste pertsona bat naizela sentitzen dut, bestelakoa, autonomoagoa. Egia da zauri handiagoa dudala, baina indartsuagoa ere banaiz».

«[*Emakumeen mugimenduak*] pertsona gisa hazten laguntzen didate, oreka dakarkidate, legitimatzen laguntzen didate. Ideia hau eraikitzen dut beraiekin: beste mundu bat posible dela. Bizitza eraikitzen dut, borroka eraikitzen dut».

«Handia izan zen hori niretzat, nire egoera berean zeuden emakumeak aurkitu nituelako. Etorkinak, ikasketadunak eta lanean egonkortasunik topatu ezinean dabiltzanak».

«Nazioarteko brigadetako kide asko poloniarrak ziren, Dobrosky brigadakoak. Asko lagundu ziguten, eta harreman estu-estua genuen elkarrekin».

«Hemen egoteak munduan kokatu nau. […] Munduko herritarrago bilakatu nau, nolabait esatearren».

«[…] Neure buruari esaten nion, ‘pasako da, beti ezin du izan horrela’. Datorrenaren gaineko itxaropena».

«Nor izaten utzi zidaten, eta horrek asko lagundu zidan; izan ere, Suedian egon nintzen garaian, ez zidaten nor izaten utzi, baina hemen bai, hemen bete-betean sentitu nuen banintzela nor. Eta gizarte honetara moldatu nintzela ere sentitu nuen, gizarteak leku bat utzi zidala. Eta nire herriaren besarkada ere sentitu nuen hemen, oheratu eta lasai lokartzeko gaitasuna berreskuratu nuen. Neure burua berrasmatzeko aukera eman zidaten, hemen nor nintzela esan dezaket».

«Pertsonen eta elkarteen babesa funtsezkoa da aurrera egin ahal izateko».

«Gorputzarekin eta espiritualtasunarekin egiten dudan lan horrek ikaragarri laguntzen nauela sentitzen dut. Jakin-min handia ere badaukat; izugarri lagundu dit herrialde honen berri jakin nahi izateak, bertako hizkuntza ikasi nahi izateak».

«Oso gaizki pasa nuen hegazkinean, hau esaten bainion neure buruari: Zergatik irten naiz ni eta, zergatik ezin izan zuten irten hainbat pertsona eraildako eta desagertuk? Zergatik dut pribilegio hori? Ezin izan nuen dolu hori egin denbora luzean, min ematen zidan…»

«Bakarrik eta lotsaturik sentitzen naiz askotan. […] zerbait zor diozu zeure buruari. Eta, oso larri egonagatik ere, ihes egiten ariko bazina bezala sentitzen zara, hemen lokarrietatik askatzen ari zarela […]».

«Sufrimenduak behartu nau naizen modukoa izatera, baina gogorra da, inork ez baitu sufritu nahi. […] Ez da sufrimendua erabat ahaztu behar, lagungarri baitzaigu bizirauteko».

«Hori izan dut etekin handiena: pertsona adoretsu eta emakume gisa ikustea neure burua, ezarri zaizkigun genero-rolen arabera jokatu beharrik izan gabe».

«Oroitzapenek eta itzuleran jarriak zeuzkaten esperantzek lagundu zieten, nik uste. Urtezahar-gaua ospatzen genuenean, hura azkeneko urtea izango zela pentsatzen eta desiratzen genuen».

«Irratia (La Pirenaica) jartzen genuen arrats-gauean, eta haren ondoan entzuten genuen, eserita. Espainia gogora ekartzen zigun edozer jartzen genuen etxean».

«Bertako jendeak ulertu behar du zergatik urruntzen diren maite dituztenengandik. Zergatik irteten diren bere lurretik, gerrak eta indarkeriak bultzatuta, edo bizitza hobea iritsi nahian».

«Norberak ez du inoiz ere ahaztu behar zergatik irten den bere herritik. Hori da bizirik jarraitzeko arrazoia».

«Izugarri sufritzen dugu, muga babestu beharra daukagu. Herrialde guztietara duintasunez sartzeko aukera izan behar da».

«Pozik nintzen bidaia egin ondoren, banuen itxaropenik. […] Benetan nengoen oso pozik […], konfiantzaz beterik. […] Pentsa nolakoa izan zen nire lehen irudipen hura».

«Bada, isilik egotea eskaintzen baldin badidate, nahiago dut hemen egon eta hitz egin».

«Amnistiaren eta demokraziaren lorpenak nire aitaren moduko pertsonei esker iritsi zirela uste dut, eta ez lorpen horiek bereganatu nahi dituztenei esker».

«Pentsatzea ere ez zutela ni hiltzea lortu. Horixe nahi zuen ejertzitoak. Ez ninduten ezeztatu, ezerez bihurtu. Izan ere, oraindik ez naiz hilotz, eta beraz, egoera honi aurre egin behar diot. Urte luzez errepikatu nion neure buruari: ez nien ni hiltzen utzi, ez ninduten ezereztu».

«Nire herrian bertan eskubideen subjektu nintzela hain argi izateak izugarri lagundu zidan».

«Ez diot inoiz ere borrokatzeari utziko. Hemen nago baina emakume kurduak ez, eta emakume kurduen ahotsa izan naiteke hemen, eta nik ahots hori izan nahi dut. […] Ez badut hitz egiten, orain arte egindakoek eta bizi izandakoek ez dute zentzurik izango».

«[...] Suedian badute gauza bat ez Euskadin eta ez Espainiako estatuan ez dagoena: errefuxiatuei harrera egiteko politika bereziak. [...] Duintasunez bizitzeko behar nuen guztia neukan. Gizarte-langile bat jarri ziguten, eta nik psikologoarengana eta medikuarengana joatea eskatu nuen, oso txarto bainentorren. Eta dena eman zidaten».

«[...] Badira bi urte bizi naizen etxebizitzaren titularra naizela, eta horrek sekulako bultzada eman dio nire segurtasunari. [...] nire etxea da, oso seguru sentiarazten didan habia».

«Oso lagungarri da herrialderen batean legezko egoeran izatea. Baina uste dut, babestuta egoteko, etxe duin bat eta lan bat izan behar direla».

«Gutako askok ikasketak dauzkagu, baina ez dugu lanik aurkitzen, ezta immigrazio-departamentuetan ere. Zergatik ezin da hor egon kontu horietan hainbeste eskarmentu duena?»

«Pertsona errefuxiatuok jakintza eta irakaspen asko dakartzagu, baina errezelo handiz begiratzen digute oraindik, ez digute berdinak bagina bezala entzuten».

«Bide-bazterretan lurperatuta daudenak aitortzea [*eskatzen dut*] lehenik; hori da lehendabizi egin behar dena. Familiek berreskuratu nahi dituzten horiek aitortzea eta duintasunez ehorztea. Eta aitortza egitea joan zirenei».

«Pertsonak gose diren bitartean, bakerik gabe bizi diren bitartean eta emakumeak bortxatzen dituzten bitartean, erbestera joango dira, bake bila. Eskubide bat da bakea».

Hady

Igor

Leila

Arantzazu

Ane

Ana Mary

Ainara

Rosario

Samuel

Augustine

Maitena

Kepa

Gustave

Josu

Amparo

Amina

ESKERONAK

Eskerrik asko **Amina**, **Igor**, **Augustine**, **Ane**, **Gustave**, **Arantzazu**, **Leila**, **Kepa**, **Josu**, **Hady**, **Ana Mary**, **Samuel**, **Ainara**, **Rosario**, **Maitena** eta **Amparo**, zuen bihotzak irekitzeagatik eta zuen oroitzapenak, minak, itxaropenak eta aldarrikapenak gurekin partekatzeagatik. Mila esker **Plataforma Tirante** taldeari, bihotza, artea eta lana uztartzeagatik, eta eskuzabaltasunez jokatzeagatik. Eskerrak **Gernika Gogoratuz** zentroari, izandako parte-hartzeagatik eta prozesu hunkigarri eta mobilizatzaile honi egindako ekarpen baliotsuengatik. Eta eskerrik asko **Joseba Sainz de Muruetari**, zure konpromisoagatik eta erbestearen funtsa hain ongi jaso duten argazki eder hauengatik.

Argitalpena: CEAR-Euskadi

Argitalpenaren lekua eta urtea: Bilbo, 2017

Argazkiak: Joseba Sainz de Murueta, Plataforma Tirante-k
sortutako *Tras la frontera* antzezlanean oinarrituak.

Diseinua eta maketazioa: Manu Legarreta-Bukinda

Euskaratzea: Bakun Itzulpen eta Argitalpen zerbitzuak, S.L.

Inprimatzea eta koadernaketa: Grafilur

Lege-gordailua: BI-1700-2017

Argitalpen hau Creative Commons lizentziapean dago.
https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/deed.es

Babesleak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

CEA(R) EUSKADI

Euskadiko **Errefuxiatuen**
Laguntzarako Batzordea

25 urtetik gora errefuxiatuen eskubideak defendatzen. Lagundu ezazu!